

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko urriaren 16a III. urtea

Usurbil, 52. Zenbakia



***Olerkigintzatik bizi
den gizona***

Txerrimunik ordainetan



Arkaitz Segurola. Zorionak ama, anaia eta falta denaren partez. Txuki ahaztu gaben noski. Ondo pasa zure urtebetetze egunean.



Zorionak **Lulu.** Ni Omnize naiz. Familia guztiaren partetik urriaren 18an egun zoriontsua pasa dezazula opa dizut. Muxu handi bat.



Zaren bezalako, urriaren 23an 14 urte betezarekin ere ez zaitez aldatu. Zorionak!



Zorionak **Ainara Arnaiz!** Urriaren 26an 15 urte beteiko dituzu. Ea orain bezain xarmangarria izaten jarraitzen duzun. Muxu handi bat etxekoan partez



Urte askoan **Maitane!** Urriaren 20an 21 urte betetzen ditfun eta! Bafiko moduan jarraitu alai ta irrifartsu eta gonbidapena ez ahaztu. Hire lagunak.



Hogeitaseigarrena orain datorkizu **Galardiko Arantxita** alaitu zaitez zu lagunak gogoratzen gera zutaz aizu zenbat maite zaitugun ondo badakizu zuretzat zorionak muxu bat bi muxu



Etxeko nagusiak 85 urte bete zituen pasa den irailaren 29an eta txikiak 7 urriaren 10ean. Zorionak eta muxu bana etxekoan partetik.



Zorionak **Joxe Mari eta Dolores.** Urriaren 9an bete ziren 50 urte ezkondu zinetetik. Urte askotarako. Familiaren partez.



Zorionak **Aintzane!** Bazenuen 19 urte betetzeko garaia. Urte askotarako. Zure lagunak!



Zorionak **Maria Teresa Altuna!** Urriaren 17an ondo pasako duzulakoan gaude. Gu behintzat zure ondoan izango gara. Seme-alaba eta hiloben partez.

Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkondu berriak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena besterik ez duzu behar.

Hurrengo alea: urriaren 30ean

Agurak ekartzeko epea: urriaren 24a

Jaiotzak

Sergio Amo Arias
(1998-09-28)
Olarriondo

Mikel Atxega Arruti
(1998-10-02)
San Esteban

Hildakoak



1998-10-07
Pedro Maiz Illaramendi
82 urte
Kaleberri

Bai, escan?

- | | | | |
|-------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala | 37 19 51 | • Taxi geltokia | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • Anbulategia | 36 20 13 | • Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza | 37 32 28 |
| • Agerialde ikastetxea | 36 38 95 | • Gure Elkarte egoitza | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia | 37 24 98 | • Arrate egoitza | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia | 37 20 01 | • Noaia! aldizkaria | 36 03 21 |

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,
Agurtzane Solabarrieta, Joseba
Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi,
Olatz Leoz, Agustin Esnaola, Izaskun
Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro
Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña
Arriaga, Urko Manterola eta Joxe
Torregaray.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker
Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola

Tirada: 2.300 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikunizunik.



Ezkutuko jipoiak, gizarteko mixeriak

Maria Jesus Furundarena

Gaur egun komunikabide guztien ahotan dabilen kontu batez natorkizue nire hausnarketa xumeak egitera. Emakumeek pausoz pauso lortzen ari gara mendeetan zehar zor zitzaizkigun eskubideak, eta mende bati bukaera eta beste berri bati sarrera eman behar diogun une honetan oraindik horrelako egoera krudelak, injustoak... zenbait emakumek jasan behar izatea latza dela deritzot.

Guztiok dakigu gai korapilotsu eta konplikatu xamarra dela orain bi lerrotan azaltzeko. Tratu txarrek ez daukate zerikusirik "status" sozialarekin, ez adinarekin, ez aberriarekin, beraz, maila guztietan ematen dira eta herrialde gehienetan. Zergatia aztertzerakoan, beti esaten da gizarte "matxista" honetan bizi garelako gertatzen direla horrelakoak, eta oraindik zenbait gizonek uste dutelako nahi duten guztia egiteko eta lortzeko eskubide osoa dutela, nahiz eta horretarako aldamenean dutena edo dituenak (seme-alabak) pertsona bezala deuseztu.

Bestalde, eta eskerrak, badira egoera honi aurre egiteko prest dauden emakumeak, baina guztiok dakigun bezala gehienetan aurrera egin dutenek zailtasun haundiekin topo egiten dute (persekuzioak, meha-

txuak...), eta batzuetan bizia bera ere galdu egiten dute ausartak izategatik.

Egoera honetan dauden emakumeek laguntza behar izaten dute aurrera ateratzeko. Hasiara batean pentsatzen dutelako lehenengo aldiz bere senarrak edo lagunak jaten duenean ez dela errepikatuko. Berriro jotzen duenean, emakumea saiatzen da beste aitzakia- ren bat bilatzen bere bikotea babestu eta justifikatzeko. Eta horrela sartuko da gero irteten kostatuko zaion zurrumbilo batean.

Egoera gordin hauek denon laguntza behar dute eta batez ere Erakunde Ofizialena (Udaletxe, Foru Aldundi...), sensibilizazio kanpainak eginez, emakume hauentzat laguntzak ipiniz etab. Horrelako kasuak leku guztietan gertatzen dira, baita gure herrian ere. Eguneroko ogia balitz bezala zenbait emakume tratu txarrik jasaten ari da, gordean darabiz bizi duen infernua, eta uko egiten dio bere etxean gertatzen ari denari, zenbait auzokidek jakin arren, etxe horretan hainbat aldiz entzun dituztelako bronkak eta lekuko isilak izan direlako. Ez da erraza horrelako kasuetan laguntza nola eman asmatzea baina ezkututzea ere ez da bidea.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

**Azala: JosAnton Artze
bere lan berria aurrean
duela**

Euskal presoak Euskal Herrira!

Azken egunotan makina ahots entzuten ari gara euskal presoak herriratzeko eskabidearen inguruan. Hauetako batzuek benetan harridura eta guzti sortu digute. Nork imajinatuko luke duela aste gutxi Salaburu jauna, Unibertsitate baskongadoaren burua, presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen? Nondik sortu ote zaio bat-batean halako grina? Badirudi IU bera ere eskakizun horren bozgoragailu zaigula. Ez, ez pentsa orain horren kexu garenik. Ez horixe. Soilik harrituta.

Harritu gaitu irailaren 25ean, goizean, Arzalluzek esandako-

ak. Berak ez omen dio eskatuko Aznarri euskal presoak hona ekartzea. Berez eskubidea dena ez duela su-etena-rekin nahastuko. Krudelkeria hori amaitzeko aspaldi eskatua omen dago. Nola ez harritu bera eta bere alderdiak orain ez dela hainbeste denbora, krudelkeria hori babestu ezezik bultzatu ere egin duenean?


Hala eta guztiz ere, ez gara horrelakorik aurpegiratzen hasiko. Gainera arrazoi osoa duela esan behar dugu, euskal presoak Euskal Herrian egoteko eskubidea baitute, tregua egon ala ez.

Baina eskubideak, nonbait, batzuenak errespetatzen dira soilik. Izan ere, justizia, guztiontzat berdina dela dioten horiek, zein gartzeletan egon nahi duten aukeratzen utzi diete GALKideei. Eta ez gara hasiko bertan dauzkaten bizi baldintzak kontatzen...

Argi dago, beraz, hemen guk ekarriko ditugula presoak eta ezin dugula sasidekrokora horiengandik ezer espero. Mugitzera behartu behar ditugu eta hori, beti bezala, gure esku dago.

Usurbilgo Senideak

Txirikitutik



Aupa Joanito! Hori duk sasoia hori! Aginagako sokatira txapelketan entrenatzaile onenaren saririk ez dagoelako, bestela... Patroi lanetarako ere balioko luke. Bere mutilei errespetua sartzen ikasia du behintzat! Honela irabazi dute azken urteetan txapelketa.

**TXARO ARTZE
ILEAPAINDEGIA**

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3 Tel. 943 37 16 85

ZANIZANGA



TABERNA

"GYRE PRESOK

HERRIAN BEHAR DITVGY"

Irazu kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

ALBORTA

HARATEGIA

Behoko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42



Isi Navarro del Amo

Jatorriz Burgostarra da, Cubillo Del Campo deritzon herri txiki batekoa. 17 urte zituela etorri zen Donostiara lanera. 35 urte baino gehiago dira hemen bizi dela eta Usurbil asko aldatu omen da.



Zer dela eta etorri zinen Donostiara?

Etxe batera zerbitzatzera etorri nintzen 17 urte nituenean. Herriko lagun batek esan zidan Donostiako etxe batean neska bat behar zutela eta ni segituan animatu nintzen.

Aurretik ikasi egiten al zenuen?

Bai, baina soilik 14 urte arte. Etxean lan asko zegoen eta ni zortzi anai-arrebetatik zaharrena nintzen. Halere, nik ez nuen gustoko soroan lan egitea, eta lehendabizi Burgosa, eta gero Madrilan joan nintzen etxe desberdinak zerbitzatzera. Azkenean, 17 urte nituela etorri nintzen Donostia aldera.

Etxe bat zerbitzatzera?

Ez, nik etxeko haurra zaintzen nuen, neska txiki bat. Kontxa aldera joaten ginen paseatzera eta ez zait inoiz ahaztuko joan nintzen lehenengo aldía. Ai ama! Gerturatu eta itsaso hura ikusi nuenean... Harrituta gelditu nintzen, ura eta ura... Bazirudien ez zela inoiz bukatzen. Donostia oso garbia zen gainera, horrek ere harritzen ninduen. Orain, berriz, nazka ematen dit Donostiara joateak, zikin-zikina dago.

Noiz etorri zinen Usurbila?

Ezkundu eta gero. Lehendabizi Lasarten bizi izan nintzen eta gero Santuenera etorri ginen.

Donostian ezagutu zenuen zure senarra?

Ez, nire herrian ezagutu nuen, bertan egin baitzuen soldaduska. Nik 15 urte nituen eta gero harremana galdu egin zen, osabak zioen gazte-egia nintzela eta... Betiko istorioa. Donostiara etorri nintzenen, Altsasuko emakume baten etxean lan egiten nuen. Alarguna zen eta

seme-alabarik ez zuenez, alaba bat banintz bezala maite ninduen. Behin esan nion Burgosen Añorgako mutil bat ezagutu nuela eta... Beno, postal bat bidali genion eta bi egunetara erantzuna jaso genuen. Gero ateratzen hasi ginen, eta ezkondu arte.

Eta familia ugari eta guzti...

Bai, 14 seme alaba ditut.

Badirudi txoko guztietan dagoela Uriberen bat...

Bai, egia da. Batez ere txikiagoak zirenean, kristal bat puskatzen zela, baloia ez dakit nora bota zutela, etxeetako tinbreak jotzen zituztela... Beti zegoen Uribe bat tartean. Nik ez dakit besteak ikusten zituzten, baina uribetarrak beti ikusten zituzten. Ez zekitelara seguru zein zen, baina Uribe zela, ziur.

Gaur egun, familia ugari gutxi dago...

Guztia erosotasunagatik da. Bizitza garesti omen dago, gu gutxiagorekin konformatzen ginen.

Usurbil asko aldatu al da?

Bai, Usurbil eta usurbildarrak asko aldatu dira. Santuenean bizi ginenean auzotar guztiok familia haundi bat osatzen genuen. Edozertarako laguntzen genuen elkar. Orain, zerbait behar baduzu aldamenekoari eskatzen diozu eta ondo eramaten zara, baina bera bere etxean eta zu zeurean. Dena aldatu da. Lehen igandetan mezetara etortzen ginen eta erosketak egiten genituen. Haragia erosten genuen Txominen harategian, eta semeak orain taberna daukan tokian janaridenda bat zegoen. Orain, berriz, dena erosotasuna da, dena gertu eta eskura daukagu, dena oso ezberdina da.

PORTULARRUME



ITURGINDEGIA

BAINUKO ALTZARIAK



Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99

MAHUKA

*Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Txokoaldetik Santuenerara zikindu gabe

Urtebete inguru pasa ondoren, hasitako lanak bukatuta zeudelakoan geundenean, ustekabe atsegina eman digute hemen dabiltzan langileek. Irabiko bidean, auzotik hasi eta Errota Berri etxeraino galipota bota dute. Bazeukan premia, jendeak poz ederra hartu du. Bat baino gehiagori entzun diot lehengo aldean bidea ederki utzi dutela. Orain gozamina omen da bertan ibiltzea.

Lehen, orain egin duen moduan, euria gogoz egiten zuenean bidearen zenbait zatitan lokatza nagusitzen zen eta

kexa ugari izaten zen auzotarren artean. Orain, ordea, nahiz eta euri jasa ikaragarria egin oinetakoak zikindu gabe joan daiteke Santueneraino. Orain arte jende asko ibiltzen zen paseatzen; aurrerantzean askoz jende gehiago ibiliko delakoan nago.

Bestalde, iraila ezkerotik itxaropen txiki batekin gaude. Garai hartan, trena batzuetan Txokoaldeko geltokian geldituko zela entzun genuen. San Praixkuak pasa dira, baina



oraindik hemen ez da trenik gelditu. Auzo honetan, pasabideko "barrera" izorratzen denean bakarrik gelditzen da trena, inor ez harrapatzeko. Bestela tren guztiak zitzu bizian pasatzen dira zarata haundia ateraz.

KALEBERRI

Begoña Arriaga



Kiroldegian betiko martxa

Eguraldi txarra benetan azken asteotakoa. Euria gelditu gabe eta nola gainera! Kiroldegi aldean nabaritzen da udaratik udazkenerako aldaketa. Umeak alde batetik bestera dabilta kiroldegi barruan eta gurasoek ere hemengo mahaietan egiten diote aurre eguraldi txarrari.

Hala ere, bestelako mugimendua ere nabaritzen da inguru honetan. Kirol talde desberdinak jo ta ke ari dira entrenatzen, gero asteburuetan partiduak jokatzeko.

Bestalde, hain ezagunak ez diren kirolek ere ikasturte honi hasiera eman diote.

Aerobikeko taldeak ia egunero biltzen dira, batzuetan gazteak, besteetan zaharagoak. Hori bai, aurten ere ez omen da mutilik apuntatu. Gimnasia erritmikoko taldea

ere hor dago. Astearte eta ostegunetan dituzte klaseak eta arratsaldeko 16.30etan hasten dira. Susana Vila monitorea esan digunez nahi duten guztik kateak zabalik



dituzte oraindik. Oraindik klaseak hasi ez direla uste duenik ere ba omen da eta horiei deia egin nahi die: gimnasia erritmikoko saioak hasi dira eta kiroldegira etor zaitezket.

ATXEGALDE

%7ak lehen aldiz bozkatzeko eskubidea

Zaloa Arnaiz



EAEko hauteskunde kanpaina hasi da. Usurbildarrok urriaren 25eko hauteskunde eguna berezia izango dela jabetu gara. Atxegaldeko

auzotarrok ere hauteskundee-tan bozkatzeko aukera izango dugu. 400 pertsona inguruk izango dute gutxi gora-behera botua emateko eskubidea, erdia gizonezkoek eta beste erdia emakumezkoek. Lehen aldiz bozkatzeko eskubidea izango dutenak berriz, 30 gazte inguru izango dira, hau da, auzotarron %7ak izango du lehen aldiz bozkatzeko eskubidea.

Portzentaia altua da herriko datuekin konparatzen badugu. Jaso ditudan datuen arabera, Usurbilen botua emateko aukera duten 4420 pertsonetatik 200 inguruk bozkatzeko dute lehen aldiz, hau da, %5ak. Datuok gutxi gora-beherakoak dira. Nahiko errealak izan arren ezin ditut %100an ziurtatu.

Eta aurten nora jo behar dugu botoa ematera? Atxegalden bizi garenoi udaltxera joatea tokatu zaigu, azkenekoan bezala. Beraz, bozkatzeko eskubide hau aprobetxatu nahi duen guztiak badaki nora joan.



KALEZAR

Bide berriaren zain

Begoña Zubiria



Kaleberritik Kalezarra joan nahi duenak bi bide ditu: alde batetik, Bordatxo aurreko errotondatik gora, Olarriondo ezkerrean utzita, Puntapaxko

zubitik Kalezarren sartzen da; bestetik Ostapeko sarrera daukagu, Bizkarreko etheen ondotik, bide estua duen zubitik gora joan daiteke Kalezarra.

ordezkatu du. Bide erdia egina dago, etxe berriak egin zituztenean sarrera berria izango denaren aztarnak utzi baitzituzten. Orain beste erdia egitea besterik ez da falta.



Hemendik urte batzuetara ordea, aldaketak izango dira. Illaramendi aurreko etxeak egiten dituztenean bide berri batek Ostapeko zubi zaharrekoko bidea

Bestalde, lehen Udarregi ikastola zenarekin zer egingo duten ez dakigu oraindik. Ikastolako umeak joatearekin batera gela ugari hutsik gelditu da, eta nahikoa leku gelditu da edozer gauza egiteko ere. Momentuz, badirudi Agerialde udalaren esku geldituko den edo ez jakin zain daudela Kalezarko ikastola zahararekin zer egin erabakitzeko. Oraindik, behintzat, hutsik daude.

SANTUENEA

Oria ibaia gainezka egiteko zorian

Alfontso Vidal



Azken asteetan euri asko egin du Euskal Herrian. Iraila agurtu genuen, baina urriaren etorrerak euria besterik ez digu ekarri. Astebete luzean euri zaparrada galantak izan



ditugu Usurbilen eta Oria ibaian ere nabaritu da hori.

Ibaiaren ur maila asko igo da egun hauetan. Momentu batzuetan zelaien parera ere iritsi izan dela esaten dute auzoan, baina zorionez Oria ez da bere bidetik atera. Eskerrak urriaren 9tik aurrera euri gutxi egin zuen, aurreko egunetako euri jasek jarraitu izan balu beste zerbaitez hitz egiten egongo ginateke.

Negua badator, eta honelakoak izatera ohitu beharko dugu. Azken urteetan, eguraldi txarrak onari leku gehiago utzi diola esan daiteke. Aurten, udazkenean sartzearekin batera euria izan da nagusi. Aurrerantzean horrela jarraitzen badu agian gorriak ikusi beharko ditugu eta denbora guztian ibaiak gora egiten duen edo ez begira egon beharko dugu.

Bukatzeko, Zorrotzeko zubiaz bi kontu. Oinezkoentzat egin duten pasabidea amaituta dago. Barandila jarri zuten eta orain leku batzuk txukuntzea besterik ez da falta. Noizko inaugurazioa?

URDAIAGA

Perretxiku bila Andatzara

Maribi Arrospide




Perretxikoen uzta ugaria izan da azken hilabete honetan eta Urdaiagan ere nabaritu dugu hori. Andatza aldean perretxikuzale bat baino gehiago ibilia da txokorik-txoko bazter guztiak miatuz. Xextoa bete perretxikurekin ikusi dituztela ere entzun da, eta ez litzateke harriztekoa izango.

Hala ere kontuz ibili beharra dago. Telebista, irrati eta egunkarietan perretxikuak jan ondoren pozoindutakoak asko izan direla esaten ari dira behin eta berriz eta kontuz ibiltzeko. Andatza aldean ere izango da perretxiku txarrik, beraz adi ibili eta kontuz perretxikuekin.

Perretxiku bila ez baina hegaztien bila dabiltzanak ehiztariak dira. Urdaiagan badakigu ehiza denboraldia noiz hasten den, tiro hotsak etengabe entzuten baitira egun horietan. Beraz, hasi da ehiza denboraldia, bai horixe, dinbi eta danba hor ibiltzen dira, goizean batzuk, arratsaldean besteak.

Beste batzuk berriz, baserrian ari dira lanean. Sagarra jotzeko garaina gaude eta zenbait baserrietan sagarra bildu eta sagardoa egiteko prozesuari ekin diote. Sagardoa egiten duten baserriak lehen baino gutxiago dira Urdaiagan. Hala

ere bada tradizio zahar honetan jarraitzen duenik, Berreiar-tza eta Igartzazabal adibidez.



AGINAGA

Euriari ere aurre egin diogu

Aurtengo San Praixkuetan euria izan da nagusi. Hala ere, jende gehiegirik ez izan arren, giro polit eta jatorrean joan dira jaiak.

Gogor ekin genien festei rokarekin. Morau, Xuia Reggae Band eta Kashbad taldeek plazan bildutako jendea ondo mugiarazi zuten. Trikitixaren doinu alaiekin jarraitu eta sokatira lehia gogorrean izerdi ugari atera zuten batzuek.

Aurtengoan ere, **Joanitoren** "Aginagako K.K.E"ko mutilentzat izan da garaipena. Benetan ikustekoa talde honen abilezia tirada luzeetan, nahiz eta aurkako taldeak txantxeta-

koak ez izan. "Euskal Herria Askatu" taldea mendean hartu zuten finalean.


Bestalde, aurreko eguneko trikiti gauean preso, errefuxiatu eta deportatuak gogoan izan genituen. Omenaldi xume baina hunkigarria izan zen larunbatekoa.

Bigarren asteburuan, berriz, ez zen ekitaldirik falta izan. Euria egin bazuen ere umeak ederki pasa zuten beren eguna. Jokoz joko ez zuten asperetzeko aukerarik izan eta Takolo, Pirritx eta Pirrutex pailazoen "txorakeriekin" oso ondo pasa zuten.

Iratxe Begiristain



Igandean, 15ean, sagardotegitako sagardoa probatzeko aukera paregabea izan genuen arratsalde partean, eta gauean jende ugari gerturatu zen San Praixkuetara. Akelarre taldeak lagunduta giro politarekin eman genien amaiera aurtengo jaiiei.



ZUBIETA

Bideak txukuntzen

Bideak txukuntzeari ekin dio Zubietako udal batzordeak. Orain dela hilabete batzuk zenbait bihurgune zuzentzeari ekin zioten, eta, oraingoan, zenbait herri bide txukuntzen ari dira. Hala nola, Zuasti base-rrira doan bidea zabaldu eta

porlanaz hornitzera dijoazte. Horretarako ari da lanean orain han dagoen makina eta laster batean bukatuko dituzte obrak.

Bestalde, Irigoien sagardotegira doan bideari ere pisu berria jarri diote, bidea berdinduz eta zuloak tapatuz. Eskertuko dugu, bai herri-tarrok baita hainbat sagardozaleek ere, premiazkoa baitzen bide hau txukuntzea.

Mikel Bengoetxea



Kirol arlora pasata, aurrera doa Endika Abril errebote txapelketa. azken bi asteetan euriagatik ezin izan dira partidua jokatu, baina datorren igandean, eguraldiak laguntzen badu behintzat, bi partidua jokatu dira: Zubieta 1-Baiona 2 eta Hendaia-Kanboarrak hain zuten ere.

Azkenik, Aginagako San Praixku jaietan zubietarrek bertako bost taldeekin neurtu zituzten indarrak sokatiran. Hainbat tiraldiren ondoren, azkenean bostgarren postua eskuratu zuten. Ikusten denez oso serio hartu zuten Aginagarrek lehiaketa, aje haundirik gabe.



Udalak Agerialde bere esku uztea eskatu du

Usurbilgo Agerialde ikastetxea eraiki zenetik irakaskuntza publikoari lotua egon da. Usurbildar ugari izan dira Agerialdeko geletan ikasi dutenak, baina gaur egun ez da ikastetxe publikorik Usurbilen. Orain Udarregi ikastolari zenbait gela erabiltzeko aukera eman dio hezkuntza sailak. Hala ere, udalak desafektzioa eskatzea onartu zuen irailaren amaieran.

Udarregi ikastolari txikia gelditzen ari zitzaion Gernika ibilbideko ikastola "berria". Eskolaurreko ikasleak Kalezarren jarraitzen zuten eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzaren etorrerak 16 urte bitartean gazteak ikastolan ikatea suposatzen zuen.

Bestalde, Agerialde ikastetxe publikoan aurten, eta aurrerantzean, ikaslerik ez izatearekin gelak hutsik gelditu ziren. Udarregi ikastolak gela berriak behar zituen eta honenbestez, udalari Agerialdeko zenbait gela uztea eskatu zion.

Udalaren uzteko nahia, ordea, ez zen nahikoa, hezkuntza sailaren oneritzia behar-beharrezkoa baitzuen.



Udarregi ikastolari Hezkuntza sailak Agerialdeko zenbait gela erabiltzeko baimena eman badio ere, gela gehiago behar ditu

Baita lortu ere. Hainbat jestionen ondoren Agerialde ikastetxeko gela batzuk Udarregiri uztea erabaki zuen hezkuntza sailak, eta eskolaurreko ikasleak eta lehen hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako ikasleak bertan ari dira ikasten.

Aldaketa honekin ordea, ez dira arazo guztiak konpondu. Udarregiko irakasleen esanetan bigarren hezkuntza eta DBHko irakaskuntza behar bezala gauzatzeko gela gehiago behar dituzte. Izan ere, DBHn ikasgaiak aukeratu egiten dira eta gela gehiago

behar izaten dituzte.

Udalak hezkuntza sailari eskatu dion Agerialderen desafektazioa izan daiteke arazo honen konponbidea. Pasa den irailaren 25ean, Hezkuntza Departamenduari Agerialde ikastetxea irakaskuntza publikotik desafektatzea eskatu zion. Honek, hiru hilabeteko epean aldeko edo ezezko erabakia hartu behar du, aipatu epean erantzunik ez bada ematen baiezko bezala ulertuko luke udalak eta Agerialde udalaren eskuetara pasako litzateke.

1999rako zerga eta tasak onartu dira

Zerga eta tasen igoera ZIPCaren antzekoa izango da 1999an, %2,3 ingurukoa. Horixe erabaki zuten iraileko azken asteartean egin zuten plenoan.

Herri Batasunak aurkeztutako proposamena oso-osorik onartu zen, alderdi bereko 7 zinegotzi eta **Izaskun Maiz** independentearen aldeko botuekin. Eusko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak abstenitu egin ziren eta Eusko Alkartasunekoek aurkako botua eman zuten, proposamenari enmienda osoa sartu

Ondasun higiezinari buruzko zerga	%2,3ko igoera
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	Berdin uzten da
Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zerga	Berdin uzten da
Iharduera ekonomikoen gaineko zerga	%4,2ko jeitsiera
Ur hornidura zerbitzua	%5eko igoera
Zabor bilketa	%5eko igoera
Estolderia zerbitzua	%10eko jeitsiera
Hileta zerbitzua	%2,3ko igoera

eta beren proposamena aurkeztu ondoren.

Erabaki hau jendeaurrean jarri da ja eta erreklamazioak aurkeztu daitezke 30 lanegunetako epean. Aipatutako

epean erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabakia behin betirako onartutzat emango da eta 1999 urte hasieratik zerga eta tasen prezio berriak ordaindu beharko dira.

Etxealdiako patioa udalarena da orain

Uztailaren amaieran lortutako akordioaren ondorioz, Etxealdiako patioa udalarena izango da hemendik aurrera. 1966an patio hau egiterakoan, honen jabetza A, B, C eta D blokeetako azpiko lokalen jabeen esku gelditzen zela jarri zuten idazkietan.

32 urte pasa ondoren, azpiko lokalen jabeek udalaren esku utzi dute patioa. 1997ko ekainaren 1eko uholdeen ondorioz kalteak izan zituen patio honek eta udalak beregain hartu ditu horko konponketa gehienak. Orain, bi aldeek lortu duten akordioaren ondoren, udalaren eskuetara pasako da patioa, nahiz eta beheko baxuak lehengoan esku gelditu. Horrez gain, hemendik aurrera egin beharreko lanak eta mantenimen



Hona hemen A, B, C eta D blokeetako azpi lokalen jabeekin lortutako akordioaren ondoren udalaren esku gelditu den Etxealdiako patioa.

dua ere udalaren esku geldituko da.

Etxealdian jarraituz, ekainak 1eko uholdeen kalteak konpontzeko zenbait lan egin

badira ere, oraindik badago zereginik. Oztopo arkitektonikoak kentzea da udalaren nahia eta lanbide hastapeneko langileek egingo dute hori. Maiatzean hasiko dira lanear.

Kalezarko bide berria eraikitzeko hitzarmena

Ostape ondoko etxe berriak amaitu dituzte; Eguzkitzaldekoak ere oso aurreratuta daude, baina laister beste etxe batzuk egiten hasiko dira Illaramendi aurrean. Etxe horiek eraikitzerakoan Kalezar aldera joateko bide berria egingo dute. Bide erdia egin dago eta etxe berriak eraikitzearekin batera Kalezarrera joateko bide berria izango da.

Udalak Arau subsidiarioen S-8ari (Illaramendi aurreko lurrak) dagokion arau aldaketa eta jarraian plan partzialarena tramitatu zituen. Onartutako plangintzan etxe berri horien urbanizazioa eta batipat kalezarrera joateko bide berria aurreikusten zen. Bere garaian udala bide berri horren finantziaketa ekonomikoan parte hartzeko erabakia hartu zuen eta pasa den irailaren 29an egin zen plenoan bi



Laister hasiko dira Illaramendi aurreko etxeak eraikitzen. Honekin batera Kalezarrera joateko bide berria egingo dute

aldean arteko hitzarmena onartu zen.

Hitzarmen honen arabera, eremuari dagokion urbanizazioa obraren jabearen gain joango da. Bide berria egiteko udalak jarriko duena berriz,

udalari dagokion hirigintza aprobetxamendua izango da. Hau da, etxe hauek egiteagatik udalari diru kopuru bat, edo diru kopuru hori lokaletan, dagokio. Diru hori bide berria finantziatzeko erabiliko da.

JosAnton Artze: olerki emanaldia dagoenean jendeak korrika ihes egiten du


Hain gustokoak dituen ibilalditxo horietako bat egin aurretik berarekin solasalditxo bat izan genuen. Euri piska bat ari bazuen ere bueltatxo bat ematera zihoan JosAnton Artze. Guk argitaratu berri duen lanaz zenbait galdera egin nahi genizkion. Izan ere, 1994ko abenduan lehen aldiz aurkeztu zuen "Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat" ikuskizuneko poemak bildu ditu izen bereko liburu eta CDan.

Nola sortu zitzaizun honelako ikuskizun bat egiteko ideia?

Ikuskizun berri bat sortzeko asmotan nebilen Joxe Anjel Arbelaitzek Victoria Eugenia neurtitzaldi bat egiteko enkargua eman zidanean. Horrez gain, olerkiak taldean errezitatzea interesgarria iruditzen zitzaidan, koru bat balitz bezala, baina kantatu gabe, irakurriaz. "Hits eta Fits" Zumarraga-Urretxuko artista gazteez osatutako taldeari bertan parte hartzea proposatu nien eta gustora hartu zuten ideia. Inoiz ez zuten horrelakorik egin, baina ahalegin askoren ondoren eta 8 hilabetez etsaiatu eta gero, emanaldi batzuk eskaini genituen.

Pozik gelditu da JoSanton Artze poema koralaren saiakera honekin?

Bai, oso interesgarria izan da. Beharbada ez dugu gehiegi landu, gauzarik sinpleena egin dugu. Nik, koruan kantekin egiten duten modura, ahots desberdinekin jokatu nahi nuen, lau ahotsetara edo binaka adibidez. Ikuskizun honetan oso gauza sinplea egin dugu. Beno, askotan olerkiak errezitatzea erraza dela esaten da, baina nahiz eta edozeinek egin dezakeen errezitatzeak bere artea du, eta kosta egiten da. Mota honetako poema koralak lan-



tzen jarraitzea interesgarria izango litzateke.

Orain, berriz, ikuskizun hartako olerki bildumarekin, irakurtzeko, ikusteko eta entzuteko lana kaleratu duzu. Zer dela eta?

Hasiera hasieratik, espresio bide aukera guztiak erabili izan ditut. Lan honetan, autore bera irakurtzen eta esaten ari da. Entzuten den hitza irakurritakoa baino askoz biziagoa da. Paperean dagoena hila dago, horregatik da espresio bide hobea zuzenean hitzetik belarriara esaten dena. Nahiz eta kontserban sartuta egon beste bizitasun bat dauka. Hala ere, irakurtzeak badu beste sekretu bat: begietatik sartu eta gure arazoimenera joaten da.

Olerkiak errazago irakurri eta ulertzen al dira?

Zenbait euskaldunek esan izan didate: irakurtzen dut baino ez dut ulertzen, baina entzuten dizut eta ulertzen dut. Irakurtzeko ohiturik ez dutenez ez dutela ulertzen esaten dute. Entzuten ari zarenean, hitzak aurrean izanda hobeto jarraitzen da olerkia. Irakurtzen ari zarenean entzutea ere garrantzitsua da, autoreak zer tonu, espresio, indar... ematen dion

jakiteko. Elkarren osagarri eta elkarren aberasgarri dira.

Zein da olerki bilduma honen ardatza?

Izenburuak dioen bezala "Mundua gizonarentzat egina da baina ez gizona munduarentzat". Gizonaren gorputzak mundu hau aski du, baina gure pentsamendua ez da kabitzen galaxia, izartegi edo itsaso za-

"Zenbaitek esaten didate: irakurtzen dut baino ez dut ulertzen, baina entzuten dizut eta ulertzen dut"

baletan, beraz pentsamendua espaziotik kanpo bizi da. Espiritu arloa hartzen badugu oraindik eta espazio zabalagoa hartzen du. Poemaldian zehar gizon osoarentzat (gorputza+pentsamendua+arima) mundua estuegia dela, ez dela kabitzen agertzen ahalegintzen naiz.

Hiru ataletan banatzen dituzu olerkiak

Hiru hegaldi jarri ditugu. Kaio banda bat hegaldatzen denean hasten da hegaldi bakoitza,

hori da seinalea. Amaren sabeletik parte hartu gabe jaiok izan gara, ez nahi gabe, ez baitakigu nahi genuen ala ez. Baina gero, eta hor dago giza-kion askatasuna, aukeratu egin behar dugu gure kabuz jaiotzea. Askotan uste dugu amaren sabeletik jaiotzean erabat jaiotze gaitza, baina ez gara horregatik jaiotzen. Amaren sabeletik gure askatasuna erabili gabe jaiotze gara eta gero askatasun hori erabiliz jaiotze behar dugu. Edo ez, noski, jaiotze nahi ez duena ez da jaiotze. Larogei urtera iristen da eta oraindik jaiotze gabe hiltzen da.

“Eduki aldetik denborapasazko olerkiak egiten dira, bitxikeriak egitera jotzen da behin baino gehiagotan”

Ateo militante izatetik, kristau izatera pasatzeak eraginik izan zuten zure olerkietan?

Funtsezko aldaketa dago bi garaietako olerkien artean. Orduan idazten nituen olerkiak oso sakonak zirela uste nuen, baina biak alderatzen baditugu, haiek azal hutsak dira, sakontasun arrastorik gabeak. Haragizko pertsona bezala bizitzetik, haragizko, arimazko eta espirituzko pertsona bezala bizitzera pasatzeak beste sakontasun bat ematen du.

Bi Joxean Artzetaz hitz egin dezakegu beraz?

Ez, Joxean bera da baina aurreko Joxean baino esnatuagoa eta espabilatuagoa. Lehengo Joxean lotan zegoen.

Eta nolakoa da euskal poesiaren egoera 2000. urtearen atarian?

Nik uste dut despiste handi bat dagoela. Olerkia nola esatera gehiago jotzen da zer esatera baino. Nola kontutan hartuta gero eta hobeto idazten dela uste dut, euskara ondo

menderatzen da eta hizkuntza poetikoa garatuagoa dago. Baina eduki aldetik, denbora pasazko olerkiak egiten dira, bitxikeriak egitera jotzen da. Azken finean ia edukirik gabeko olerkiak egiten dira.

Askotan olerkiak ez dira ulertzen.

Olerki ulergaitzak egiten dira askotan. Ez dira ulertzen ezer ulergarririk ez dutelako. Olerkiek prestijioa galdu dute, emanaldi bat dagoenean jendeak korrika ihes egiten du, beldurra die mota honetako ekitaldiei. Hori da olerkiak irakurtzen hasi eta eta ez dituelako ulertzen. Horrek jendea atzera botatzen du. Arte guztiek ulergarritasuna behar dute lehendabizi eta olerkiak ere ulertzeko zerbait eduki behar du, heldulekuren bat. Beste gauza bat da bakoitzak zenbat sakondu dezakeen hura. Sarrera ireki egin behar zaio olerkiak entzuten dituenari, itxita badago ez du sakonduko.

Eta zer egin behar da olerkierenganako beldur hori uxatzeko?

Ulertzeko moduko olerkiak egin behar dira lehendabizi eta

gero jendeari bere sakonean dituen gauzak esan behar zaizkio. Gizaki guztiok barruan ditugun galdera sakonei erantzuna emango dien edo agertuko dien edukia erabili behar da poesian.

Zer egin behar du JosAnton Artzek aurrerantzean?

Liburu bat edo bi ateratzeko materiala badut eta hori prestatzen ari naiz momentu honetan. Jendearean beste musikariek zuzeneko emanaldiak emateko konpromezuak ere badituz. Datorren urterako berriz, Donostian aurkezteko zerbait prestatzeko eskatu didate. Kontzertu gisakoa izango da, kantariekin, dantzariekin poesia nahastuz.

Azken 25 urte hauetan poesiatik bizi zara. Nola egiten da hori?

25 urtekin hasi nintzen egunero olerkiak egiten eta 33 urterekin profesionalki honetatik bizitzen nintzen. Beste edozein lan izango balitz bezala egunero aritzen naiz lanean. Harotza bere mahaian lanean jartzen den modura, edo nekazari bat aitzurrean egunero aritzen den modura, ni ere jo eta ke olerkiak egiten egoten naiz egun osoa.

Joxan, Joxeantonio, JosAnton... nola idatzi behar dugu zure izena?

Hori ez da nire errua, jende guztiak desberdin deitzen baitit. Batek Joxan, besteak Joxean, hurrengoak Josanton, beste hark Joxeantonio, iparraldean Koxanton... Nire izena era askotara idatzi izan dut, eta oraingoraino JosAnton jartzea ez da zerbait berezia jartzeagatik izan. Hasieran idazleen elkarteko eskutitzak Joxan Artzeren izenarekin etortzen zitzaizkidan, baina bapatean Josanton Artze jartzen hasi ziren. Antton Valverde berak ere Josanton deitzen dit aspalditik. Honela Josanton Artze izena jartzea erabaki nuen.



Bost futbol zelai akordioaren alde: Bai Euskarari!

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua euskalgintzaren topagune eta koordinagune bezala sortu zen pasa den abenduan, eta bere helburu nagusia euskararen normalizazio osoa lortzea da. Noaua! ere bertako bazkide da eta kanpainan zehar ere bere laguntza eskainiko dio bai Kontseiluari eta bai kanpainari ere.

Pasa den urriaren 3an, Zamudioko Parke Teknologikoan egindako aurkezpenean, euskararen eta euskal kulturaren inguruko 300 pertsonatik gora elkartu ziren Kanpainaren helburuak, aurreikusitako etapak eta gainerako zehaztasunak ezagutzeko. Hauekin batera, sostengua eta lankidetzarako prestutasuna agertu zuten hainbat sektoretako ordezkariak ere izan ziren.

Kanpainak herriz herriko dinamika du ardatz nagusia. Azaroan, Euskal Herri osoko herri edo eskualdeetan akordioaren aldeko atxikimendua jasotzeko ekitaldiak egingo dira. Horri begira, ja martxan jarri dira ekimen desberdinak aurrera eramateaz arduratuko diren herrietako batzordeak eta herritar guztiak dute parte hartzeko aukera. Abenduan, bestalde, "Lan-ordu bat akordioaren alde" izeneko ekintza bultzatuko du Kontseiluak; langile eta enpresa-arduradunek lan-ordu baten balioa euskararen aldeko akordioaren alde ematea dakar berarekin ekimen honek.

Kontseiluak aurkeztutako kanpainaren alderik ikusgarriena, zalantzarik gabe, abenduaren azken astean egingo den amaiera-ekitaldia da, Donostiako Anoetan, Bilboko San Mamesen, Iruñako El Sadarren, Gasteizko Mendizorrotza zaharberrian eta Miarrizteko Aguilera egongo dena abenduaren 26an. Ordezkariek esan dutenez, "euskararen alde ez da munta honetako ekitaldirik izan sekula. Ekitaldi bakar gisa ulertu behar dira bost hiriburuetan egingo diren emanaldiak, elkarrekin arituko baitira bost estadioetatik bertara bildutakoak". Ekitaldiari buruzko zehaztasun guztiak ematerik ez badago ere, bost estadioak EITBk bermatuko duen telebista-sistema baten bidez lotuta egongo direla aurreratu daiteke.

Kontseiluak abendua bitartean burutuko duen kanpainan mezu garbia helarazi nahi dio euskal gizarteari. Kanpainan zehar egoeraren gaineko diagnostikoa zabalduko da; honetan Kontseiluak gaur egungo egoera baloratu eta epe motzerako proposamena egiten du, hots, gizarte osoa bere baitan hartuko duen akordioa. "Akordio soziala borondatearen adierazpide gisa ulertu behar da. Eragile sozialei euskararen normalizazioa areagotzeko zer egin dezaketen aztertze konpromisoa azalduko dute Akordio Sozialera bilduz eta hortik jarriko dira abian elkarrekin aztertu diren neurri normalizatzaileak".

Jende ugari Intsumisio egunean




Festari behintzat ez zitzaion intsumisiorik egin pasa den urriaren 10 eta 11n. Antolatzaileen esanetan, nahiz eta eguraldiak asko lagundu ez, 15.000 pertsona inguru gerturatu ziren Usurbila Intsumisio egunean. Larunbatean musika izan zen nagusi. 3000 entzule inguru izan omen zituzten Ekon, Latzen, S.A. eta Blues Thorpesek. Igandean berriz, goizeko 11.00etan eman zitzaion hasiera Intsumisio egunari. Egun osoan zehar ekitaldi ugari izan ziren frontoi aldean, Udarreki ikastolako plazan eta Gaztetxe atzeko aparkalekuan. Eguerdiko 14.00etan 25 autobus eta 900 kotxe inguru zeuden antolatzaileen datuen arabera.



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 943 36 22 55



Igandetan ganba-ziri mundialak!

APELLIDUAK ABIZENDU KANPAINA AURRERA

Hilabete batzuk pasa dira Udalak, Euskal Herrian Euskarazek eta Noaua! Kultur Elkarteak kanpaina hau martxan jarri zutenetik. Orain arte 51 usurbildar izan dira beren abizenak euskalduntzeko nahia azaldu dutenak. Oraindik ez dute beren abizenak euskaldunduta ikusteko aukerarik izan, baina izango dute aukera hori. Laster udaletxetik pasa beharko dute agiri bat jasotzera. Argibide gehiago nahi duenak udaletxera joan daiteke edo bertara deitu eta Lurdesengatik galdetu.



Eskuz binakako Usurbilgo XVI. pelota txapelketa amaitu da ja. Pasa den urriaren 2an jokatu ziren azken partiduak eta neurketa parekatuak ikusteko aukera izan zuten bertara gerturatu ziren guztiek. Gazteen mailako finalean, partidu gogor eta orekatu baten ondoren, **Etxabe eta Galartza** bikoteak lortu zuen txapela **Azpiazu eta Mintegiri** 22-20 irabazi eta gero. Helduen mailan berriz, **Errasti anaiak** izan ziren nagusi, 22-14 irabazi baitzieten **Eizagirren eta Astigarragari**.

MEZAK BERRIZ ERE SALBATORE PARROKIAN

Denboralditxo batean mezak industrialdean eman ondoren, berriz ere Salvatore parrokian ematen dira asteburuetako mezak. Azken bi hilabeteetan eliza barruan lanean aritu dira, elizako sabaia konpondu eta txukuntzen, eta horregatik industrialdeko lokal batean egin behar izan dituzte eukaristiak. Orain, badakizue, berriz ere Salvatore parrokian emango dira mezak. Elizako dorrea ere konpontzem ari dira eta eguraldiak hobetzen badu laster bukatuko dituzte bertako lanak.



Arg: Ekaitz

Andatzpe Kirol Kultur Elkartea orain dela 50 urte sortu zen. Irailean zehar zenbait ospakizun egin dituzte. Udaletxean egin zuten Batzar Orokorra eta bizi diren fundatzaileei (**Teodoro Aranburu, Miguel Zugasti, Martxial Goenaga, Joxe Goenaga eta Martin Manterola**) egin zitzaizen omenaldia izan zen ekitaldirik nagusiena. Ekitaldi horretakoa da argazki hau. Ondorengo bazkarian, berriz, Zeberio eta Lizaso izan ziren bertsolariak, eta ez Azpillaga eta Agirre.



Arg: Txintxarri


Kirikoketa txalaparta taldeak Euskal Herriko herri desberdinetan txalaparta jotzen jarraitzen du. Oñatin izan ziren pasa den irailaren 19an Mikel Laboa abeslariarekin batera eta urriaren 3an Lasarteko Jalgi tabernan jo zuten txalaparta Iñaki Xalbadorren doinuei lagundu. **Jexux Artze, Iker Muguruza, Mikel Artola eta Pello De la Kruzek** osatzen dute Kirikoketa taldea eta epe motzean disko bat grabatzeko asmoa ere badutela adierazi digute.

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Maila haundiko sokatira txapelketa Aginagan

Aginaga Kirol Kultur Elkartek ez zuen huts egin. Hirugarren urtez jarraian Joanito Galarragak zuzendutako mutilek garaipena lortu zuten pasa den urriaren 4an, San Praixku egunean, egin zen sokatira txapelketan.

Aginaga Kirol Kultur Elkarteko 8 ordezkariak tiraldi guztiak irabazi zituzten, Euskal Herria Askaturen aurka jokatu zuten finala barru. Hala ere, azken bi tiraldi hauetan pasa zituzten estualdi haundienak. Lehengo tiraldiak 5 minutu baino gehiago iraun zuen eta bigarrena motzagoa izan bazen ere, Euskal Herria Askatuko kideek gertu izan zuten garaipena.

Guztira sei taldek parte hartu zuten, bi taldetan banatuta. Aginaga K.K.E, Goitarrak eta



Zubieta aritu ziren lehenengotan eta Euskal Herria Askatu, Pakito's boys eta Gaztiak bigarrenen. Azkenean honek gelditu zen sailkapena:

- 1-Aginaga K. K. E.
- 2-Euskal Herria Askatu
- 3-Goitarrak
- 4-Pakito's boys
- 5-Zubieta
- 6-Gaztiak

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, jende ugari gerturatu zen Aginagako plazara. Sokatira txapelketak ikusmin handia sortu zuen eta tiratzaile guztiak animo ugari jaso zituzten. Proba hasi aurretik kinielak egiteko aukera izan zen eta txapelketako sailkapena oso-osorik asmatu zutenak hiru izan ziren.

Domina ugari judoka usurbildarrentzat

Judoka portugaldarrekin, frantziarrekin eta alemaniarrekin Portugalen aste-beteko kontzentrazioa egin ondoren, denboraldi hasiera ona izan du **Usurbil Judo Elkartek**.

Valladoliden, senior taldeak lau domina lortu zituen: urrezko domina **M^o Jose Sardonek** (+78 Kg.), zilarra **Iker Lizarribarrek** (-100 Kg.)




eta brontzea **Javier Giral** (-81 Kg.) eta **Garazi Goikoetxeak** (+78 Kg.). 18 urte azpiko taldeari dagokionez, sei domina leporatu zituzten Oiartzungo txapelketan: urrea **Iñigo Etxaniz** (-60 Kg.) eta **Josu Arrutik** (+90 Kg.), zilarra **Andoni Aizpurua** (-55 Kg.) eta **Alex Sanchezek** (-60 Kg.) eta brontzea **Aitzol Arrospide** (-73 Kg) eta **Iker Pagolak** (-81 Kg.).

gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 943 36 27 70

20170
USURBIL



Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

tlf 943 36 14 87

OIARTZUN

Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeko aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. Elkarrizketaren bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzeari lortu behar ditugu.

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea. Euskararen benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.

Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da. Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.


www.ea-euskadi.com/hauteskundeak

Orain duzu aukera,


**EMAN
BOTOA**




**eusko
alkartasuna**



Osaba Joxemari



**Joxe Ramon
Furundarena**



- Medikua
- 36 urte
- Bi semeen aita
- Irakurtzea eta igeri egitea gustatzen zaio

1915ean Aginagako Eiza etxean jaioa, Agustin Furundarena eta Lorentza Begiristain aitona-amonen seme zaharrena izan zen. Ondoren jaio ziren hurrenez hurren Joxe Migel, Tomas, Dolores, Inazio, Bittoriano- aita dudana- eta Juanita.

Auzoko eskolatik pasa ondoren hiru urtez Donostiako eskola batean luzatu zituen ikasketak. Hamalau urterekin hiriko Aranzabal burdindegian hasi zen lanean. Goizez trenez joaten zen, bertan bazkari-legea egin eta arratsaldean, lana amaitu ondoren, Urumea frontoira joateko ohitura zuen bere afizio haundiena praktikatzera, hau da, bai eskuz bai zestoarekin pelotan jokatzera. Afizionatu mailan partidu ugari jokatu omen zituen.

Aginagan lagun izan zituen Joxe Juan Bereziartua, Eleuterio Errasti eta Zelestino Agirrerekin ibiltzen zen inguruko herrietako festetan, sagardotegietan, pelota partiduak ikusten etab. Garai hartan Eiza etxean taberna bat izanda, askotan bertako lanetan lagundu beharra suertatzen zitzaion. Bestalde, aitona Agustin auzoko barberoa izanik, ilea mozten edo bizarra egiten ere ibili zen.

Zeregin politikoetan ere parte hartu zuen, Alderdi Jeltzaleko militantea izan baitzen. Hala ere, etxekoek diotenez etxekoekin politikaz ez zuen gehiegi hitz egiten.

Gaztea zela Zelestinorekin batera txirriadaz joaten zen arratsaldean Donostiaraino soldadus-

kako instrukzioa egitera arratsaldeko zazprietatik bederatzietara. Halaxe esan zidan orain dela urte batzuk Zelestinok, ederki gogoratzen zela oraindik txirriandana nola joaten ziren. Ordurako gerratea hasia zen eta osaba Joxe Mari Usurbilen jarri zuten barbero lanetan. Markesaren etxea zaintzen goardiak egindakoa, Zarautzen ere ibili omen zen zenbait egunetan.


Halako batean gau batez, denak lotan zirela, ate-joka etorri ziren txapelgorriak, amona Lorentzak ireki eta osaba Joxe Mariz galdetu ondoren preso eraman zuten. Leku askotan galdetu zuten etxekoek baina inon ez zieten berririk eman. Gerora,

eta lagun batzuei esker jakin ahal izan zuten Lasarten preso eduki ondoren Tolosara eraman eta betako hilerrian fusilatu eta lurperatu zutela 1936ko urriaren 3an. Elizkizunak urriaren 5ean egin ziren Frantzisko Donearen eliza zaharretan; urte horretako San Praixku jaiak bertan behera gelditu ziren. Hamar urte pasa behar izan zuten,

ezagutzeko aukerarik eman ez ziguten osabaren hezur-errautsak Aginagako hilerriara ekarri ahal izan arte.

Urriko egun hauetan San Praixkuak ditugu beste behin ere, baina aurtengoak itxaropen eta ilusio berrituaz etorri dira. Oraindik bide luzea antzematen bada ere ea laister denok batera ospatu ahal izaten ditugun.

Oharra: eskerrak luzatu nahi dizkiet bere garaian datu guzti hauek eman zizkidaten sendiko- ei eta Zelestino Agirreri.



4420 usurbildarrek eman dezakete botua

Urriaren 25ean hauteskunde eguna da Euskal Elkarte Autonomoan, eta Usurbilen ere bai noski. Goizeko 9.00etan hasi eta arratsaldeko 20.00ak arte botua emateko aukera izango dute 4420 usurbildarrek. Baina zer hauteskunde dira hauek? Eusko Legebiltzarrerako eta Foru Aldundietako Batzar Nagusietarako ordezkariak aukeratuko dira egun horretan. Dena prest dago. Alderdiko politikoez beren hauteskunde kanpainari ekin diote eta hauteskunde mahaia osatuko duten pertsonen zozketa ere egina dago.

Hauteskunde eguna gertatzen ari da. Usurbilen botu eman dezaketenen zerrenda (zentsoa) udaletxean egon da azken hilabeteetan eta bakoitzak bere botua non eman behar duen ere argi adierazten du zentso honek.

Azken urteetan bezala, Usurbil 3 sekziotan banatuta egongo da:

Lehenengo sekzioko mahaiak udaletxean egongo dira eta Kaleberri, Atxegalde eta Etxealdiakoek bertan eman beharko dute botua. Bi mahai egongo dira hauentzat: A mahaian A-K abizenetakoak emango dute botua eta B mahaian L-Zkoek.

Santuenea, Urdaiaga eta Aginagako biztanleak bigarren sekzioan sartzen dira eta hauek ere udaletxera joan

beharko dute botua ematera. Hemen ere bi mahai egongo dira: A mahaia A-K, eta B mahaia L-Z.

Azkenik hirugarren sekzioan bi lekutan egongo dira hauteskunde mahaiak. Udarregi zaharrean egongo diren mahaietan Kalezar, Olarriondo, Galtzaragaina eta Bizkarre kalekoek eman dezakete botua. A mahaian A-K bitartekoek eta B-n L-Z bitartekoek. Zubietako Lanbide eskolan berriz mahai bat egongo da Zubieta eta Txikiardikoen zat.


Urriaren 25ean egingo diren hauteskundeetan 4420 usurbildarrek dute botua emateko eskubidea. Hauetatik 2166 emakumeak dira eta 2254

gizonezkoak. Lehen aldiz botua emango dutenak berriz, 213 izango dira. 1996ko maiatzean izan ziren Gorte Nagusietarako hauteskundeekin konparatuz, hautesle kopuruak goruntz egin du. Hauteskunde haietan 4338 usurbildarrek zuten botua emateko aukera. Beraz, aurtten, 82 botuemaile gehiago izango dira.

Botua eman dezaketenen kopurua goruntz doa pixkanaka-pixkanaka. 1994. urteko legebiltzarrerako hauteskundeetan 4321 usurbildarrek eman zezaketen botua, 1995eko udal hauteskundeetan 4330ek, 1996ko Espainiako Gorte Nagusietarako hauteskundeetan 4338 ziren hautesleak eta urriaren 25ean 4420 usurbildarrek izango dute botua emateko eskubidea.

Guztontzat ezagunak diren alderdi politikoez gain hain ezagunak ez diren beste bi alderdiri ere botua emateko aukera izango da aurtengo hauteskundeetan. Eusko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna, Euskal Herriarrok, Euskadiko Partidu Sozialista-Euskadiko Ezkerra, Partidu Populrra, Ezker Batua eta Unidad Alavesa dira komunikabideetan agertzen diren alderdiak. Hala ere, badaude beste bi alderdi: "Partido Humanista" eta "Partido de la ley Natural".

Josu Aranberri



ARRYTI

harategia



TXURRUT EDARITEGIA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 36 00 80



Justizia euskaldun baten bila epaitegira

Euskaldunoi dagozkigun hizkuntz eskubideak aldarrikatzeagatik sei gazte epaitu zituzten pasa den urriaren 13an. Zein da beren delitua? Epaitegietan euskarren bazterketa salatzea. **Nikolas Bengoetxea** usurbildarra zegoen horien artean eta abenduaren 16an Agurtzane Solaberrieta eta Endika Zinkunegik pasa beharko dute epaitegitik.

Nikolas Bengoetxea eta Euskal Herrian Euskaraz taldeko beste bost kideak ez ziren epaiketara azaldu. Epaileak epaitegiaren kanpokaldera begiratu izan balu han aurkituko zituzkeen, baina akusatua han egon gabe epaiketak aurrera egin zezakeenez 1500000 pezeta edo hiru hila-beteko kartzela zigorra eskatu zituen fiskalak.

Ez da epaitegitik pasatzen diren lehen aldia. 1997ko otsailean epaiketa bat moztu zuten eta orduan hasi zen laisterketa luze hau. Justizia mailan euskara baztertuta zegoela salatu nahi izan zuten, justizia mailan euskaldunok jasan behar dugun injustizia lau haitzera zabaldu. Urte berean, irailean, epaiketa bat mozteagatik epaitu zituzten Bergaran. **Nikolas Bengoetxearen** esanetan epaiketa hura bertan behera uzteko mozteak erabaki zuten. "Epaiketa moztu egin genuen. Ez gintuzten delitua egiteagatik epaitzen, falta

modura baizik. Hala ere guk ez genuen epaiketa fartsa hura onartu. Guk aurreko epaiketa moztu genuenean gure ukatu egiten zaigun hizkuntz eskubidea besterik ez genuen eskatzen". Horregatik orain, desordenu publikoengatik epaitu dituzte.

Justizia euskalduntzeko plangintzarik ez

Euskal Herrian Euskaraz kanpainak bere eragina izan duela uste dute Usurbilgo EHEko kideak. Ez dira epaiketa asko moztu, lau hain zuzen ere, baina honelako ekintzek oihartzun handia izan dute. "Justizia mailan euskalduntzeko plangintza baten beharra dagoela argi gelditu da. Abokatu euskaldunak ere mugitu dira eta horrek ere indarra eman dio salaketa honi. Hala ere gauzak mugitzen ari direla, epaileak euskalduntzen ari direla saltzen digu-

te komunikabideek, baina justizia euskalduntzeko plangintzarik ez dago". Hauen ustez plangintza hori ezinbestekoa da, "epaile berriak euskaldunak izan behar dute eta orain daudenetatik euskaraz ez dakitenek euskaraz hitz egiten ikastea eskatzen dugu".

Oraingoz epaileak euskalduntzea eskatzen dute. "Momentu honetan justizia espainiar edo frantsesak epaitzen gaitu, guk justizia euskaldun bat nahi dugu". Justizia euskalduntzeko mailez-mail joan behar dela badakite, "kolpera ezin da justizia osorik aldatu, horregatik euskalduntzea pauso bat izango litzateke. Hala ere, hori lortuta justizia atzeritarraen menpean gaudela ez dugu ahaztu behar". Euskal legedi baten eta euskal administrazio bat ezinbestekotzat jotzen dute

Josu Aranberri



**JARRI EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA HEMEN!**



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48

Bota bertsoa

Abere batzuen meritua

Kabiya egiten ez da asiko
txepetxa arra bezin goiz,
baño ez du inork esan biarrik,
berak badaki nun da noiz,
lanian ari dala beira egotia
suertatu izan zait iñoiz,
tellatu azpian kapiyuan kontra
paretari eransten loiz,
kanpotik orla antolatzen du
barrena berriz algodoiz.


Eriak ere udan kanpotik
etxera eramaten du,
ark e badaki bere buruba
neguban nola mantendu,
inori eztiyo ezer ostutzen
berak egiña jaten du,
langille danak elkar artuta
alperra ito eta kendu,
guk ere askoz obe genikek
ori egingo bagendu.

Txingurriak ere badauka
naiko adelantua,
orrek lurretan karriatzen du
sekulako elementua,
udan kanpotik ateratzen du
betzat neguko kontua,
azkenerako osatuzten du
torre gisako muntua,
txepetxa dela azkarra baña
ezta berare tontua.

Besabe are bost-ortz ta gurdi
akullu, uztarri ta ere,
atxur ta pala, sega ta itai
sarde eta eskobare,
zerri ta zakur, asto ta katu
auntz, ardi bei ta abere,
aita ta ama seme ta alabak
preziso biar dirade...
baserritarra biar bezala
osatze ote da ala ere?

Egilea: **Pello Beloki Aranburu** (Zubieta 1875-1940)

Lehiaketa



Zein eraikuntzatan dago harmarri hau?

Asmatzaileen artean **Sekañan** bi lagunentzako afa-
ria zozketatuko da

Aurreko aleko lehiaketaren erantzunari dagokionez,
argazkian ateratzen ziren alkatea eta zinegotziak 1967tik
1973ra izan ziren udaleko ordezkariak. Asmatzaileen arte-
tik **Aloña Pulidok** izango du **Bordatxon** afaltzeko aukera.

EZKERRAREN ORDUA



el voto Solidario

URRIAK 17 larunbata

- Andatza K.K.E.ak antolatuta **Moncayo mendira irteera bi egunetarako**. Hurrengo egunean, urriaren 18an, Zangotzara joango dira **Nafarroa Oinezera**.

URRIAK 21 astelehena

- Euskal Herria Askatu!ren **kozentrazioa** errotondan arratsaldeko 20.00etan

URRIAK 21 asteazkena

- Guraso eskolak antolatu duen **Eskulan ikastaroan** izena emateko eguna. Udarregi zaharrean, goizez 11.00etatik 12.00etara eta arratsaldez 17.30etatik 21.00etara. Ikastaroa **azaroan hasi eta apirila arte** izango da eta **Susana Martin eta Pelex-ek** eman-go dute. Prezioa: 12.000 pezeta (bi zatitan ordaintzeko aukera).

URRIAK 5 astelehena

- Euskal Herria Askatu!ren **kozentrazioa Bordatxo aurreko** errotondan arratsaldeko 20.00etan

OHARRAK

- **Areto dantza ikastaroa** hasi da. Bertan parte hartu nahi duenak deitu 939-481266 telefonora. Mutilak animatu daitezela!

- ✓ Kiroldegian, Andatza taldeak **Gimnasia erritmikoko entrenamenduak** hasi ditu. Astearte eta ostegunetan arratsaldeko 16.30etatik aurrera.

- ✓ **Aterpe** eskulangintza taldeak bere **tailerra** ireki du Etxealdian. **Tailaketa, marrazkia eta pintura, errestaurazioa eta eskulanak** landu nahi dituenak deitu 943- 364783 telefonora.

- ✓ **Usurbilen pisua alokatuko nuke** lagun pare bat edo, prest egongo balira. Deitu 943-360439 telefonora. (ez banago mezua utzi)

- ✓ **Pisua alokatzen da** Kaleberri inguruan. Deitu 943- 364335 telefonora.

- ✓ **Pisua alokatzen da** Usurbilen. Bizkarre kalean dago pisu hau. Alokatu nahi izan ezkerro deitu 943- 366485 telefonora

LANPOSTUAK

- ✗ Gizarte Zerbitzuen arloan denboraldi batetarako sortzen diren pertsonal beharrei erantzuteko, lehiaketa-oposaketa bidez, **Gizarte langilez osatutako lan poltsa bat** osatu nahi du **Zizurkilgo udalak**. Informazio gehiago Zizurkilgo udalean edo GAOko 190. zenbakian.

ARETO DANTZA IKASTAROA

Areto dantza ikastaroa hasi da. Urtero bezala mutilak ez dira animatu. Neska-mutilak animatu areto dantza ikastaroa ikastera.

TELF. 939-481266

Guraso eskolak bertan partaide izateko deialdia egiten du. Izaera hobea egotea eta aberasteko, seme-alaben heziketaz arduratzea eta egitasmoak besteekin eta beste-entzat zabaltzeko aukera ematen dizu. Bertan parte hartu nahi izan ezkerro urriaren 21ean Udarregi zaharrera azaldu



BOTA PUNTTUBA BERTSO ESKOLAREN IKASTURTE HASIERA

Nahiz eta afaria prestatu behar, nahiz eta andregaiak despedita emateko arriskua izan, edo futbola telebistan eta matematikako ariketak egin gabe, zatoz usurbilgo bertso eskolara bertso zahar nahiz berriak ikasiaz ondo pasatzera. Azaroaren 4an arratsaldeko 20.30etan Udarregi zaharrera

BAZKIDE TXARTELA


5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Noaua!!
HAMAROSTEKARIA

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____

420

bazkide ditu Noauak!
Zu ere egin zaitez
bazkide



**Bakea nahi izatea
ez da nahikoa.
Ekinaren ekinaz
lortu behar dugu.**



Joseba Egibar

Juan Jose Ibarretxe
Lehendakarirako Hautagaia

Asko da egiteko daukaguna.

Bakea egiteak eta adiskidetzak elkarrizketa eta tolerantzia

esan nahi dute. Eta hitz egitea eta elkar ulertzea dira ditugun

arma bakarrak horretarako. Ideia guztiak lasai eztabaidatzeko garaia da, etorkizuna kontutan izanda,

denon partehartzearekin bultzatuko dugun bake-proposamen zehatza eta adiskidetzekoa eginez.

Irtenbideren bat badagoela sinesten badugu, aurkituko dugu. Horregatik, botoa emateaz gain zeozer

gehiago behar dugu. Zure ilusioa alegia.



www.ibarretxe.com

KONPONBIDE
GARAIA DA

BOZKATU

EH

Euskal Herritarrok

Larunbatean, eguerdiko ordubatean mitina
eta herri bazkaria izango dira frontoian.